



2022/2023 denboraldia

20. ZIRKULARRA

EMAKUMEZKOEN OHOREZKO KADETEEN LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Ohorezko Kadeteen liga txapelketa honela antolatu du:

1. KLUB PARTAIDEAK

GRUPO 1 TALDEA

- 1 TOURING KE
- 2 INTXAURDI K.E.
- 3 AÑORGA K.K.E
- 4 MARIÑO C.D.
- 5 OIARTZUN K.E.
- 6 MARTUTENE K.E.
- 7 URNIETA K.E.
- 8 ANTIGUOKO K.E.
- 9 DANENA AIZTONDO K.E.

GRUPO 2 TALDEA

- 1 EIBAR S.A.D.
- 2 ANAITASUNA C.D.
- 3 GOJERRI GORRI F.K.
- 4 LAGUN ONAK C.D.
- 5 ILINTXA S.D.
- 6 ALOÑA MENDI K.E.
- 7 UROLA K.E.
- 8 TOLOSA C.F.
- 9 ZARAUTZ K.E.
- 10 ZUMAIAKO F.T.

2. LEHIAKETA SISTEMA

Emakumezkoen Ohorezko Kadeteen liga txapelketa 19 taldek osatzen dute 2 multzotan banatuta. Bi fasetan jokatuko da: lehenengoa itzuli batera jokatuko da (9 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

Bigarren fasea honela banatzen da:

A. Txapeldunen Fasea

Lehenengo bost sailkatuek jokatuko dute Txapeldunen Fasea (5x2=10) bi itzulietara (10 jardunaldi).

Lehenengo postuan amaitzen duen taldea izango da kategoriako txapelduna.

B. Gipuzkoako Kopa eta Mailari eusteko fasea



Gainontzeko 9 taldeek Gipuzkoako Kopa jokatuko dute bi itzulietara (18 jardunaldi).

Lehengo postuan amaitzen duen taldea izango da Gipuzkoako Kopako txapelduna.

Kadeteen 1. Mailara jaitsiko dira azken 4 sailkatuak.

3.ADINAK

Txapelketa honetan 2006., 20067 eta 2008. urtean jaiotakoek har dezakete parte.

4.LIZENTZIAK

Gehieneko kopurua 25 lizentzia da. Hala ere, denboraldian zehar dauden altak eta bajak konpentsa daitezke.

5.BALOIA

Baloia 5 zenbakiduna izango da.

6.IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 80 minutuko iraupena izango du, zazpi aldaketa egin ahalko dira gehienez 5 leihotan eta gehienez zazpi ordezeko egongo dira aulkian.

7.XEDAPEN OROKORRA

"Azken urteko ohorezko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.
- Foru Erakundearen baimena, eskolarteko infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten.
- Azterketa medikuaren ziurtagiria aurkeztea.
- Mutualitatean afiliatuta egotea.
- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea.



8. PARTE HARTZE BIKOITZAREN ARAUZKO ONDORIOAK

Aurreko puntuan deskribatutako baldintzak beteta, infantilen azken urteko jokalariek goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute, baina **infantilen taldean lerrotatze desegokiaren okerra egingo da, asteburuan bi partidatan parte hartzen badute, nahiz eta egun desberdinetan egin.**

9. DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.


10. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalaturik, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzea, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

Donostia, 2022ko iraila

**GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL**


Inigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General